

IEFPS Miguel Altuna GLHBI
Bergara

Miguel Altuna Institutuak gidatuko du COOP-PBL in VET proiektu europarra

El Instituto Miguel Altuna lidera el proyecto Europeo COOP-PBL in VET

NAZIOARTEA ZABALTZEKO ILDO ESTRATEGIKOARI JARRAITUZ, MIGUEL ALTUNA INSTITUTUAK (MAI) AURRERAPAUSSA EMAN DU COOP-PBL IN VET EUROPAKO PROIEKTU BERRIA KOORDINATZEKO ARDURA BEREGANATUTA. BERRIKUNTZA-TRANSFERENTZIAREN ALORREKO PROIEKTUA DA, LEONARDO DA VINCI PROGRAMAREN BARRUAN DAGOENA, ETA HORREN BIDEZ FINLANDIAKO ETA ALEMANIako UNIBERTSITATEETAN ERABILTZEN DITUZTEN PBL – LANKIDETZA-METODOLOGIAK TRANSFERITUKO DIRA, HALA NOLA, KPE ETA COOP DIRELAKOAK.

DENTRO DE SU LÍNEA ESTRATÉGICA DE INTERNACIONALIZACIÓN MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA (MAI) DA OTRO PASO COORDINANDO EL NUEVO PROYECTO EUROPEO 'COOP-PBL IN VET'. SE TRATA DE UN PROYECTO DE TRANSFERENCIA DE INNOVACIÓN ENMARCADO EN EL PROGRAMA LEONARDO DA VINCI EN EL CUAL SE VAN A TRANSFERIR DIFERENTES METODOLOGÍAS COLABORATIVAS UTILIZADAS EN UNIVERSIDADES DE FINLANDIA Y ALEMANIA TALES COMO EL KPE Y EL COOP.



2010eko urrian burutu da MAIATZ SIMULFORM Europako proiektua. Berrikuntza-transferentziako Europako proiektuetan MAI koordinatzaile-lanetan aritu den lehen aldia izan da. Hotzko estanzio-prozesuen diseinuan elementu finituen bidezko analisi-teknologiak txertatzea izan zen proiektuaren ardatza. Egitasmoa oso teknologikoa zenez, eta Frantziako, Danimarkako eta Italiako unibertsitateekin eta teknologi zentroekin batera lan egin zenez, know-how esanguratsua bereganatu du MAIK, betiere ikasleei prestakuntza eskaintzeari eta lankide dituen enpresetara teknologi zerbitzuak bideratzeari begira.

Emaitzak bikainak izan dira, eta ez bakarrik teknologiaren aldetik, baita mota horretako proiektuek eskatzen duten koordinazioari eta lanari dagokienez ere. Horregatik, MAIK proiektu berria aurkeztea erabaki zuen, oraingoan beste alderdi garrantzitsu baten ingurukoa: irakaskuntzako eta ikaskuntzako metodologia berriak euskal LHn txertatzea.

Euskal Lanbide Heziketaren erroka handienetakoa da gure ikasleei osoko prestakuntza eskaintzeko modurik egokienak bilatzea. Horrenbestez, teknologia-ezagutza eguneratua izateaz gain, gaur egun ezinbestekoak diren zeharkako balioak barneratu behar dira, hala nola, sormena, talde-lana, komunikazio-gaitasuna, autodisiplina, antolaketa-gaitasuna, arazoaren ebazpena eta autoikasketa. Berrikuntza transferitzeko proiektuaren bidez, MAIK Europako hainbat unibertsitateetan landu dituzten esperientziak egokitu nahi ditu eta gure hezkuntza-eskaintzan txertatu.

En octubre de 2010 finalizó el proyecto europeo Maiatz Simulform, la primera experiencia de MAI como coordinador de un proyecto europeo de transferencia de innovación. Éste se centró en la integración de tecnologías de análisis por elementos finitos en el diseño de procesos de estampación en frío. Las características altamente tecnológicas de este proyecto y el trabajar con universidades y centros tecnológicos de Francia, Dinamarca e Italia, han proporcionado la adquisición de un know-how relevante para MAI a la hora de ofrecer formación a sus alumnos y servicios tecnológicos a las empresas con las que colabora.

Tras los excelentes resultados obtenidos no solo desde el punto de vista tecnológico sino también por la experiencia adquirida en la coordinación y el trabajo que supone un proyecto de estas características, M. Altuna Institutua decidió presentar otro nuevo proyecto, esta vez abarcando otro aspecto importante como la integración de nuevas metodologías de enseñanza-aprendizaje en la FP vasca.

Uno de los grandes retos de la FP vasca es buscar las formas más adecuadas de ofrecer una formación integral a nuestros alumnos, lo cual implica no solo la adquisición de conocimientos tecnológicos actualizados sino también una serie de valores transversales imprescindibles hoy en día como pueden ser creatividad, trabajo en equipo, habilidades de comunicación, autodisciplina, capacidad organizativa, resolución de problemas y autoaprendizaje. Mediante este proyecto de transferencia de innovación MAI pretende adaptar varias experiencias llevadas a cabo en diferentes universidades europeas en el ámbito de metodologías PBL e integrarlas en nuestra oferta educativa.

Helburuak honako hauek dira :

- Lanbide Heziketa berritzea, eta ildo horretan, ikasleek zeharkakogaitasunak bereganaditzatela, enpresen eskakizunei erantzun eta lan-aukerak areagotzeko xedearekin.

- LHko ikasleen prestakuntzan lantegiek parte hartze handiagoa izan dezatela, eta ikasketak eta lan-esperientzia hurbilagotzea.

Ezaugarriak honako hauek dira:

Eredua lau esperientzia piloturen bidez probatuko da. Horrela, Lanbide Heziketako lau institututan jarriko da abian eta 150 ikasle, 20 hezitzaile eta 100 industri enpresa baino gehiago izango dira partaide.

Web 2.0 oinarri duen PBL / PjBL komunitate birtuala plazaratuko da hedapenerako ekintza gisa eta etorkizuneko ustiakarako laguntza-tresna modura. Gainera, webgunea, proiektuari buruzko eskuorri elektronikoa eta emaitzen aurkezpena landuko dira.

Partzuergoan honako partaide hauek bildu dira: bigarren hezkuntzako Lanbide Heziketako hiru eskola (Hungariako bi eta geurea), transferentziaren testuingurua eta aplikazio-esparrua izango direnak; Helsinkiko (Finlandia) unibertsitate bat, lankidetzarako e-learning tresnen ikerketan eskarmentua duena eta KPE-Lab sustatu duena; Bremengo (Alemania) Lanbide Heziketako ikerketa-zentro unibertsitario bat, hezkuntzako ICTetan espezializatua; eta Iruñeko aholkularitza-enpresa bat, ICTetan eta elkarri lotutako nazioarteko proiektuen kudeaketan eta ebaluazioan aditua, EURONET-PBL sustatu duena.

Proiektuak bi urte iraungo ditu, 2010eko irailetik eta 2012ko irailera. Epe horretan bost meeting egingo dira partaide diren herrialdeetan.

Proiektuaren aurrekontu osoa 295.288 €koa da.

Bukatzeko, honako emaitza hauek lortzeko asmoa dago:

- On line lanerako softwarea, KPEtik egokitua, enpresetako praktikek irau bitartean LHko ikasleek dagozkien proiektuak lantzeko aukera izan dezaten, hezitzaileen eta tutoreen laguntza eta gidaritza on line jasoz.
- "PjBL/PBL erreminta kutxa", eduki didaktikoekin, baliabideekin, tresnekin, ebaluazio-prozedurekin eta erabiltzailearentzako eskuliburuarekin.
- PjBL/PBL eta lankidetzak-ikasuntzarako teknologiak aplikatzeko Gida Pedagogikoa.

Los objetivos son:

- La innovación de la formación profesional, para que los estudiantes adquieran las competencias transversales para atender requerimientos de la empresa y aumentar su empleabilidad.

- El aumento de la participación de las industrias en la formación de los estudiantes de FP y un mayor acercamiento entre el aprendizaje y la experiencia laboral.

Las características son:

Este modelo se pondrá a prueba en cuatro experiencias piloto de aplicación, en 4 Institutos de FP, con una participación prevista de más de 150 estudiantes, 20 formadores y 100 empresas industriales.

Una comunidad virtual PBL / PjBL basada en Web 2.0 será lanzada como una acción de difusión y como instrumento de apoyo a una futura explotación. Se desarrollarán también un sitio web, un folleto electrónico del proyecto y una presentación de los resultados.

El consorcio está integrado por 3 escuelas secundarias de formación profesional (2 de Hungría y la nuestra propia) que proporcionarán el contexto y el ámbito de aplicación a la transferencia, una universidad de Helsinki (Finlandia) con experiencia en investigación de herramientas de colaboración e-learning, que ha sido el promotor de KPE-Lab, un centro de investigación universitario de Bremen (Alemania) de formación profesional (FP) especializado en las TIC's educativas y una consultoría de Pamplona experta en TIC's y gestión y evaluación de proyectos transnacionales relacionados entre sí, promotor de EURONET-PBL.

El proyecto tiene una duración de dos años, comenzando el septiembre del 2010 y finalizando en septiembre del 2012. Durante el desarrollo del proyecto se realizarán cinco meetings en los distintos países participantes.

El presupuesto total del proyecto asciende a 295.288 €

Para finalizar los resultados esperados son:

- Un software de trabajo on line, adaptado de KPE, que facilite a los estudiantes de FP el desarrollo de los proyectos asignados durante las prácticas en las empresa, apoyados y guiados on line por sus formadores y tutores.
- Una "caja de herramientas PjBL/PBL", con contenidos didácticos, recursos, herramientas, procedimientos de evaluación y manual del usuario.
- Una "Guía Pedagógica de aplicación de PjBL/PBL y tecnologías de aprendizaje colaborativo" en programas de formación profesional.



Z Polska do Bergara

MAIn eskutik, Poloniako "The Complex of Electronic Schools" ikastetxeko 10 ikasle Bergara eta inguruko enpresetan lan praktikak egiten arituko dira. Hiru astetan zehar informatika eta elektronika alorrean egingo dituzte praktikak. Ikasletariko bat gainera MAIko informatika alorrean jardungo da lanean.

De la mano del MAI, 10 alumnos del instituto "The Complex of Electronic Schools" de Polonia, van a realizar prácticas de trabajo en algunas empresas de Bergara y su entorno. Éstas se desarrollarán en las áreas de informática y electrónica más concretamente. Además, uno de ellos va a trabajar en el departamento de informática del MAI.